

# Hiru hizkuntzaren arteko ukipena. Frantsesa, gaztelania, euskara, Piriniotako ibar batean

(Contact between three languages. French, Spanish  
and Basque in a valley in the Pyrenees)

Ibarra Murillo, Orreaga

Nafarroako Unib. Publikoa. Campus Arrosadia. 31007 Iruña  
orreaga@unavarra.es

BIBLID [1137-4454 (2006), 21; 179-193]

Jaso: 05.01.27  
Onartu: 05.10.18

---

*Hiru hizkuntzaren –gaztelania, euskara, eta frantsesa– arteko ukipen mota aztertzea da artikulu honen helburua. Alde batetik, gainestratu eta adstratu hizkuntza gisa, frantsesak eta gaztelaniak euskararen baitan duten eragina; eta bestetik, substratu hizkuntza gisa euskarak egungo gaztelanian duen eragina, hizkuntza maila guztietan: fonetikoa, morfologikoa, sintaktikoa eta lexikoa.*

*Giltza-Hitzak: Hizkuntza interferentzia. Erroibar. Hizkuntza ukipena. Gaztelania-euskara. Hizkuntza transferentzia.*

*El objetivo de este artículo es analizar el tipo de contacto lingüístico entre tres lenguas: castellano-euskara y francés. Por una parte la influencia del francés y del castellano en euskara, como lenguas de superestrato y adstrato; y por otra la influencia del euskara como lengua de sustrato en el castellano actual, en todos los niveles lingüísticos: fonético, morfológico, sintáctico y léxico.*

*Palabras Clave: Interferencia lingüística. Valle de Erro. Contacto de lengua. Castellano-vasco. Transferencia lingüística.*

*Le but de cet article est d'analyser le type de contacte linguistique entre trois langues: espagnol-euskara et français. D'une part l'influence du français et de l'espagnol en euskara, comme langues de superstrat et adstrat; et d'autre part, l'influence de l'euskara comme langue de substrat dans l'espagnol actuel, à tous les niveaux linguistiques: phonétique, morphologique, syntaxique et lexique.*

*Mots Clés: Interférence linguistique. Vallée de Erro. Contact de langue. Espagnol-basque. Transfert linguistique.*

## HIZKUNTZ ALDAKUNTZAZ ETA UKIPENAZ

*Language contact is everywhere: there is no evidence that any languages have developed in total isolation from other languages.* (Thomason 2001: 8)

Azken urte hauetan ugaritu dira hizkuntza ukipenaren inguruko azterketak, eta hauek ikertu dira soziolinguistika zein dialektologiaren ikuspuntutik. Weinreichentzat, ukipenean dagoen edozein hizkuntzaren arauaren desbideraketak dira interferentziak. Gaur, ordea, zentzu peioratibo hau ekiditeko, transferentzia hitza erabiltzen hasi da, hitz hau neutroagoa da, eta agramatikaltasunak suposatzen duena ekiditen du. Gaur interferentzia kontzeptua zerbait konplexu bezala ikusten da eta ikuspuntu sozial eta linguistikotik baloratzen hasia da. Azken batean transferentzia da hizkuntza batek bestean egiten duen eragina, edota A hizkuntzaren islada B hizkuntzan.

Hizkuntzaren ikerketan gertatzen den aldakuntza ez da sortzen bilakabide endogeno batengatik, baizik eta eragile historiko, sozioekonomiko eta kulturalen laguntzaz. Eragile hauek direla eta hizkuntza anitz sartu dira ukipenean, eta hori izan da azken 40 urteetan hizkuntzalarien arreta piztu duena.

Artikulu honen helburua da aztertzea zein nolako ukipena dagoen hiru hizkuntzaren artean, alegia, frantsesaren eta gaztelaniaren eragina euskarari, superestrato edo adstratoko hizkuntzak bezala. Bestetik, –eta hau da atal zabalena– ikertu nahi dugu zein izan den euskararen eragina hemengo gaztelanian, alegia, euskararen eragina sustrato hizkuntza bezala norainokoa izan den eta hizkuntzaren zein ataletan eragin duen gehien.

Aztergai dugun eremua Nafarroako mugako ibar bat da: Erroibar. Haran honetan hiru hizkuntzek izan dute eragina, euskara nagusi izan da azkeneko menderarte. Baina, ondoren emeki-emeki gaztelania eta frantsesa nagusitzen joan dira, eta horra nola sortu den hiru hizkuntza horien ukipena. Ugariak izan dira euskara/ gaztelaniaren arteko interferentziaz arduratu direnak, besteak beste Echenique, Ciervide, Etxaide, Zarate, Saralegui, Fernandez Ordoñez... Hauetako batzuek, gainera, eremu euskalduneko erromantze berezi bat –euskara-gaztelaren arteko ukipenaren ondorioz sortua– proposatu dute. (ik. Echenique 1996)

### 1. FRANTSESAK HEMENGO EUSKARAN UTZITAKO AZTARNA

Hartu-emanen gradueltasunean zuzenki eragiten duen errealitatetik bat orografia da. Iparra eta hegoaren arteko eragina aztertzeko beharrezkoa da haran honen kokapena aztertzea. Izan ere, mendi altuek bereizten dute alde bateko eta besteko lurrek, alegia, goi eta Baxe Nafarroakoak. Baina, hau ez da muga haustezina izan, ordea, bi aldeko harremanak ugariak izan dira.

Alde batetik, Done Jakue bideak zeharkatzen du ibar hau, aspaldiko bide zaharra erabiliz –erromatarren garaikoa– Pirinioak zeharkatzeko. Dudarik gabe, garrantzi handikoa izan da bide hau kultura, sinismen eta salerosketa

aldetik. Iragan mendeetan lur hauengatik borroka gogorrak izan dira mugaz bestaldeko auzokideekin. Mende hauetako kronikek kontatzen dute frantsek Mezkitzen eta Aurizperrin sortutako liskarrak, hilketak eta lapurketak.

Ordutik hona, Urepel eta Baigorriko artzainek ekartzen dituzte ardiak Erroibarko soro hauetara bazkatzera, horrela, harreman estua izan da beti bi haran hauen artean. Gure arbasoek ere hartu-eman horiek sendotu dituzte, artilea, ardoa eta garia garraiatuz. Bestaldetik, mugatik hain hurbil dagoen eremu honetan gau-lanak bizitasun handia izan du eta hara-hona egindako bidaiek harreman hori estutu dute. Dudarik gabe euskara beharrezkoa zen bi aldeetako hitzun hauek harremanetan jartzeko. Gaur egun, paradoxa dirudien arren, alegia, komunikabide hobeak badiren arren, ipar-hegoaren arteko harreman hauek urriagoak direla esan dezakegu. Artzantza eta nekazaritzaren beheraldiarekin batera hizkuntzaren eragina ere jaitsi egin da eta mailegu berririk ez dela sartzen esan dezakegu, ez da Nafarroako mugako beste herrietan bezala –Zugarramurdin eta Urdazubin– gertatzen.

Aurreko lerrootan esandako guztiarengatik, hemengo euskalkiak ezaugarri anitz konpartitzen du iparraldekoarekin, baina hau ez da gure helburu izanen. Gure xedea da euskara / erdara (alegia, frantsesak nahiz gaztelaniak utzitako interferentzietan arakatzea). Ez dialektoen arteko ukipenean. Mugatik hurbil dagoen eremu honetan aise da ikustea frantsesaren eragina, azken mendeotan areagotu dena. Hona mailegatutako zenbait hitz: *afera* fr. *affaire*, *defota* '3 urteko ardia' < (fr. *defaut* 'defecto, falta'), *espresa*, *kaleria* 'balkoia', *kanibeta* < fr. *ganibet* 'labana', *finitu* 'bukatu', *fite* < fr. 'vite', *arribetu* < fr. *arriver* (Zil), *xarmanta* 'ederra', *trefla*, *artxitero* < fr. *architecte*, *boneta* 'txapela', *bisaia* (Zil) 'aurpegia', *fierra* 'azkarra', *zafrat* 'zaplastekoa', *kaskuin* 'buruhandi' gask. *gaskoin*, *mantxadera* 'Especie de escalera colocada horizontalmente en la pared del pesebre' < fr. *manger*, *mangeoire* eta cat. *manchar*.

Hitz batzuek gaskoiaren eragin linguistikoa nahiz kulturala islatzen dute: *aufer*, *kaskuin*. Ohikoa denez, mugatik hurbilago dauden herriek, eta agian iparrarekin harreman zertxobait gehixeago izan dutenek, Mezkitzek eta Zilbetik, mailegu gehiago erabiliko dituzte hegoaldekoek baino. Horrela, mugatik hurbil dauden Eugin eta Zilbetin honakoak entzun ditugu: *omeleta* 'tortilla', *otoa* 'autoa', *montra* 'erlojua'. Beste lexema batzuk gaztelaratik datoz, baina Frantziako kulturaren eragina islatzen dute, esaterako, *parespunte* < *punta de París*, hauxe da iltzei hasieran eman zitzaizen izena.

Lexiko mailegatu honek eremu semantiko hauek besarkatzen ditu: pertsonen kualitateak, etxeko tresnak, abereak, bereziki artzantza mundukoak. Kasu batzuetan zabalpen semantikoak ikus ditzakegu, horrela *galdegin* 'eskatu, galdetu', fr. *demande* aditzaren eragina islatzen du edo 'defota', euskaraz '3 urteko ardia da', nahiz frantsesez 'defaut' adierazten duen.

Ohar bedi, bidenabar, adstratotik –alegia, frantsesetik– transferitutako guztia lexikoa dela, izan ere frantsesa oso hizkuntza berria da. Frantsesaren zabalkuntzak Frantzia osora ez darama bi mende baino gehiago, honenbestez, logikoa da bere eragina batez ere lexikoan izatea. Ez dago, guk aztertu-

takoaren arabera, interferentzia sintaktikorik, ezta morfologikorik ere. Izan ere Erroibarren gaztelania eta euskara dira ukipen zuzenean daudenak, eta frantsesa agertzen da soilik aipatutako artzantza, sal-erosketa eta beste arrazoiengatik. Kontuan hartu behar da mailegatutako lexiko kopuru hau eten egin dela, ez da Zugarramurdi eta mugako herri horietan bezain bortitza, eta, orokorrean harremanak urriagoak dira gaur lehen baino eta honek bizimodu aldaketarekin harreman zuzena du.

## 2. GAZTELANIAREN INTERFERENTZIA EUSKARAN. LEXIKOA

Azken garai honetan, zer esanik ez, gazteleraren eragina gero eta handiagoa da. Zoritxarrez, euskara galtze bidean abiatu da ibar honetan (ik. Ibarra 2000), eta euskaldun zaharrik ia ez da gelditzen, eta gelditzen direnak, zaharrak eta ahituak. Gaztelaniaren eragin hau areagotu da azken urteotan, eta, zoritxarrez, tokiko euskara heriotz bidean abiatu dela konturatu ahal izan gara. Egun hiztun gutxi dago, zaharrak gehienak, hizkuntzaren erabilera urria da, eta hizkuntzak gero eta funtzio gutxiago betetzen ditu. Baina historian zehar euskara izan da nagusi, horregatik gaztelaniatik mailegatu dena berriki izan da eta, bereziki lexikoari dagokio. Hori dela eta, hemengo euskarak gaztelaniatik zerbait hartu badu, lexikotik hartu du. Hizkuntzaren gainerako atalek morfosintaxiak, esaterako, etab eragin gutxiago jasan dute. Izan ere ezaguna da, lexikoa dela hizkuntza batetik bestera errazen irazten dena, morfologia eta sintaxia ez bezala.

Jakina denez, lexikoa da herriko kulturaren eta ontasunaren ispilua, eta horregatik, gure gizataldean, bizimoduaren galerarekin batera desagertu dira herriko bizitzarekin, abereekin eta landareekin loturiko hainbat hitz, eta, gainerakoak abiada bizian galduz doaz, hiztunekin batera. Lexikoaren galera hau suertatzen denean, bi modu nagusitan suerta daiteke:

- a) Hiztegi nuklearra galduz: nuklearra deitzen zaio giza bizitzarako oinarrikoa den lexiko multzoari. Honako hitzak izan daitezke: *sua, eskua, alaba, bi*.
- b) Hiztegiaren elementu periferikoak galduz. Talde hau osatzen dute kultura eta gizarte talde baten antolakuntzarako balio duten hitzak: *psikiatra, ileapaindegia, hiztegia*.

Argi dago eragile anitz dagoela hitz multzo hauek horrela galtzeko. Weinreich-ek aztertzen du (1953) zein egoeratan gertatzen diren honako galera batzuk (ik. Appel R. Muysken P. 1996: 247):

- Kultur eraginarengatik.
- Jatorrizko hitz asko badiarelako galtzen direnak eta arrotzek ordezkatuak direnak.
- Anbiguetateak ekideteke bi hitz antzekoak izatekotan.
- Hitz afektiboen sinonimoen beharra etengabekoa delako, eta lehenagotiko hitz horiek beren balio adierazkorra galdua zutelako

- Sinonimoen beharra handia delako.
- Bereizketa semantiko berriak egiteko beharra dagoelako.
- Elebitasun bortitzaren ondorioz, hitz bat ia ohartugabe sar daitekeelako.

Arestian genioenez, Erroibarko hizkera heriotz bidean dagoen une hone-tan gazteleratikako maileguen kopurua gero eta nabarmenagoa da, eta honetan, lexikoa da eragin zuzenena jasaten duena. Ikusi besterik ez dago Etxaideren galdeketari (1979) emandako erantzun asko Erroibarren: *fuellea*, *razimo*, *otoñoa*, *rekeseune*, *dedalea*, *intestinoak*, *limakoa*, *ardille* eta n/s (no sabe) ugariak.

Guk egindako ikerketetan beste hainbeste galera topatu dugu. Batzue-tan hitzunak ez direlako hitzun oso, eta hizkuntza galtzeko zorian dagoe-lako. Nolanahi ere, egindako grabaketa ugarietan beste honako hauek atera zaizkigu. *De mala manera*, *frontera*, *salide*, *deskansatu*, *desafiletu*, *pagatu*, *eskribitu*, *aprobetxatu*, *permisoa*, *dretxoa*, *repartitu*, *mankomuni-dadea*, *adjudiketu*, *kosetxa*, *karretera*, *modifikatu*, *prezintetu*, *kostumbre*, *desaparezitu*, *desauziatu*, *reklamatu*, *inprebisto*, *millon*, *instalazionia*, *enko-fratzeko*, *tabikea*, *juntetu*, *explotatu*, *akaso*, *kaja*, *bola*, *katxarro*, *ornillo*, *abonua*, *errementa*, *trenzatu*, *korreoa*, *akonpañatu*, *hoja*, *boluntario*, *manta*, *amititu*, *fallo*, *kontorno*, *plantatu*, *reparo*, *zepoa*, *salida libre*, *paliza*, *tapatu*, *matrikulatu*, *tentsioea*, *kamara*, *difikultade*, *klaro*, *karameluak*, *por ejemplo*, *terriblia*, *kontserbatu*, *refinetu*, *herramienta*, *kontsultatu*, *injerto*, *pakete*, *almozatu*, *kliniken*, *luzitu*, *operatu*, *kanbietu*, *prémioa*, *pareja*, *kurandero*, *broma*. Jakin badakigu zerrenda hau luza zitekeela, hitzunaren ezagupe-naren eta gaitasunaren arabera aldakorra izan daitekeelako, baina, hauek atera zaizkigu grabaketa ugarietan.

Beste hauek ere eriden ditugu, egunero etxeko giroan erabiltzen diren hitz arruntak, hauek ere erdaratik mailegatzen dira. Hona bildutako batzuk: *floria*, *nietoa*, *abueloa*, *patua* 'ahatea', *umedua*, soso 'geza', *petxoa*, *mule* 'mandoa', *mastiketu*, *iposa* 'zotina', *granua* 'alea', *kostunbre*.

Bistakoa denez, lexiko hauetako item batzuk lexiko nuklearrari dagozkio. Beste batzuk lanbideei eta gaurko aurrerapenei; medikuntza, zein eraikuntza mailan egindakoei eta azkenean, beste batzuk erabilpen urriaren eta eroso-tasunaren ondorioz mailegatuak dira. Bestaldetik, ikerketa anitz egin dira jakiteko zein den errazen mailegatzen den kategoria. Esaterako, quechua eta gaztelaniaren arteko ukipena aztertu zenean honelako hierarkia izan zitekeela (ik. Appel & Muysken 1996: 255) ondorioztatu zen: *izenak- adjetiboak- adi-tzak- preposizioak- lokailuak- zenbatzaileak-determinatzaileak- izenorde libreak- izenorde enklitikoak- konjuntzio menpekotasunezkoak*.

Nolanahi dela ere, adostasuna dago onartzean hizkuntza batetik beste-  
ra errazen mailegatzen dena izenak direla egindako ikerketa batean baino  
gehiagotan horrela frogatu baita. Diskurtsoaren markatzaileak eta esapi-  
deak ere erraz mailegatzen dira. (ik. Thomason 2001: 133) *But nouns and  
discourse markers are also among the most common types of loanwords,*

*an agreement that is hard to explain as mere coincidence. Honatx aurkitu batzuk: pues emendik iten dute arroltziak eta... / orduen pues losatzen (sic) zigute/ segun nondik yoaten zen okio, aize iper batekin, ellegatu omen tze denborat, nai dut erran, vaya!, eske guráma egon zen gaizki, Bueno, nik zer dakit. Ya lo creo.*

### 3. EUSKARAK HEMENGO GAZTELANIAN UTZITAKO AZTARNA

Orain arte, behintzat, euskara izan da hemengo gaztelania koloreztatu duena, sustrato gisa jokatu du, gaurko menderarte nagusi izan baita eta horregatik, honexek osatuko du artikulu honen atal nagusia. Gure haurtzaro osoan helduei entzuten genien gaztelania interferentziaz josirik zegoen, azpian euskarazko hurrenkera morfosintaktikoa eta euskararen fonetika islatzen zuen. Hona Mitxelenaren hitzak gaztelaniaren eragina azaltzen dutenak:

En todo lo que queda por debajo de la conciencia es, por el contrario, la lengua menor la que actúa sobre la otra: en el sistema de las categorías gramaticales, por una parte, y en el sistema fonológico por la otra. (Mitxelena 1964: 117)

#### 3.1. Interferentzia fonetikoak

Euskararen sistema fonetikoak eragin nabarmena egin du gaurko gaztelanian, eragin hau aspaldikoa da. Menéndez Pidal (1923: 28) aspaldian ohartu zenez

*Kontsonante afrikariak:* Kontsonante txistukarietan aurkitzen ditugu euskararen eragin nabarmenetariko batzuk. Esaterako, eremu honetan entzuten diren ebakera afrikatu hauek: *n*, *r* eta *l*-ren ondoren: *en[ts]alada*, *por[ts]iacaso*, *dul[ts]e*, *pacien[ts]ia* euskarazko erregela fonetiko bat islatzen dute. Alegia, euskaraz, ozenen ondoko kontsonante txistukariak afrikatu bihurtzen duena. Honez gain, zenbait lexematan, silaba hasieran kontsonante afrikari bizkarkaria aurkitzen dugu, frikariaren ordean. *cinco*-> *[ts]inco*, *[ts]imenea*, *[ts]irurike* 'silvando' baita hitz erdian ere: *ka[ts]arro*, *pa[ts]aran* 'endrina', *pecha*-> *pe[ts]a*, *po[ts]olica*

*/r/ fonema dardarkaria.* Euskarazko fonetikaren arabera, */r/* dardarkari biguna eta anitzaren arteko neutralizazioa gertatzen da. Esandako honen froga izan daiteke ahoskera hauek: *yogurres*, *Ziburresa* (Aurizperriko Zibur etxeokari esanda). Bestaldetik, "r" anitza ahoskatzeak balio adierazkorra izan dezake, euskarak duen bezala; izan ere euskaraz izanondoari pisu berezia eman nahi diogunean kontsonante dardarkaria nabarmentzen dugu, dardarkari anitza eginez. Hori dela eta, honako ebakera ditugu: ¡que rrrrabias hice!, grrrande era. Azkenik, *r*- fonema hasierako posizioan dagoenean, bokal protetiko bat hartzen du; gaztelaniaz mintzatzean ere joera hau errepikatzen da: adib. ¡Erredios!.

*Kontsonante herskariak.* Euskarazko fonetikan herskari inplosiboa + explosiboa taldeetan galtzen da inplosiboa. Hemengo gaztelaniaz arau honen arrasto nabarmenak aurkitzen dira, kontsonante pare hori desegiten da eta *kt* > *t* eta *pt* > *t* taldeak bakanagoak dira: *tócsico* -> *tósiko*, *raptar* -> *ratar*, *tractor* -> *trator*, *nocturna* -> *noturna*. Aipaturiko hauetaz gain, honako kontsonante bikoteak murrizten dira: *bj* > *j*, *ojeto*; *gn* > *n*, *inorante*, *repunancia*; *pc* > *c*, *lección*, *corrución*, *conceción*; *bs* > *asurdo*, *asorber*, *oservar*; *ns* + herskaria > *s* *costante*, *istante*, *trasportar*; *cc* > *c*: *lección*, *acidente*, *destrucción*.

### 3.2. Lexikoa

Hurrengo lerrootan zerrendatuko ditugun hitzak gure haurtzaro osoan entzundako hitz arruntak dira. Gure herriko aita-amek, barrideek, nork gehiago nork gutxiago, ez zekiten euskaraz mintzatzeko; halarik ere, adierazkorta-suna izateko euskarazko hitzetara jotzen zuten etengabe, lexiko konnotatiboa hizkuntza horretan aurkitzen zutelako. Eremu semantikoez den bezainbatean, euskara ez da beste hizkuntzetatik aldentzen, eta interferentzia jasaten duten alor semantikoak antzekoak dira beste hizkuntzetan ere. Esaterako, hona galego eta gaztelaniaren artekoak (ik. Fernandez Rei 1999: 66): famili-bizitza, ezaugarri fisiko eta psikologikoak, abere eta landareen izenak eta soroko eta itsasoetako lanaren ingurukoa etab.

Gu ere ados gaude honetan, euskarazko lexiko ugari entzun dugu erdaraz mintzo zirenen ahotan, aski da Iribarrenen hiztegia ikustea konturatzeko zenbat hitz transferitu edo besteganatu diren euskaratik eta hiztunek hauek aukeratzen bazuten horregatik zen: ezin hobeki adierazten zutelako haiek nahi zutena. Hona jendearen nolakotasunaren adierazgarri direnak.

JENDEAREN EZAUGARRIEN DESKRIBATZAILEAK. *Agoandi* 'bocazas'. *Artxitero* 'mañoso'. *Auferra* 'vago'. *Baldarro* 'Torpe, desmañado'. *Bixkor* 'Fuerte'. *Borte* 'Hijo bastardo'. *Buruauñdi* 'Cabezota'. *Donao* 'Solterón'. *Enanzo* 'Fuerza, garbo'. *Fardelenecua* 'Mal vestido, desaliñado'. *Farrandusca* 'Amante de la juerga'. *Farrusco* 'Orgulloso, fanfarrón'. *Gaitxes* 'Desgraciado, que no lo quiere nadie'. *Gautxori*. 'Trasnochador', *Guripa* 'pícaro, tunante'. *Harrapatona* 'Que gusta de recolectar'. *Ilun* 'Triste', *Ilunkerie* 'Tristeza, angustia'<sup>1</sup>. *Indurie* 'Habilidad, fuerza'. *Kakapikor* 'Ardi-kaka, irain bezala ere erabilia'. *Maribisteko* 'Limpieza superficial'. *Marifurrunda* 'Mujer malhumorada'. *Marimutiko*, *Marizerrenda* 'Mujer descuidada en el vestir'. *Marmarraundi* 'Protestón'. *Morrosko* 'Mocetón'. *Motela* 'De poco fundamento, soso'. *Mukizu* 'Mocoso', *Mutilon*, *mutilzar*, *muttu* 'Callado, reservado'. *Muturzikin*, *muzina* 'Mujer suscep-

---

1. Joan zen hilabeteen zendu zen José Mari Erro aurizperrikoaren omenez. Hiru ilabetez egon da gaixorik, gaixoasun larri batek jota. Haren arrebak kontaktzen zidan nola, nahiz euskaraz ez jakin, bere azkeneko hitzak adierazteko, euskara hautatzen zuen. Horrela, azkeneko hilabete horietan galdetzen zionean: "zer moduz Jose Mari?" erantzuten zuela esanez "Tengo ilunkerie". Arrebak erraten zion –erdi txantxetan– hori ez zegoela hiztegietan, medikuek ez ziotela ulertuko. Orduan eriak erantzun zion: *pues les diré que tengo "tristura" que es más que "tristeza"*.

tible, de la que se resiente y ofende con facilidad'. *Neskazarra*, *ñarro*, *ñañarro* 'Pequeñajo'. *Ponpoxo*, *potoko*, *pottolo*, *potxolo*, *sanogabe* 'Sin fundamento'. *Tartarro-a* 'Charlatán', *Tokilo-a* 'Gordinfón, tranquilote'. *Tripaundi*, *ttirripitin* 'Niña pequeña y graciosa', *Zakarro-a* 'Torpe, zafio'. *Zangaluze* 'Piernas largas'. *Zorri* 'Salsero, entromedito'

LANDAREAK. Herriko kulturari ertxiki lotuak daude landare eta abereen izenak. *Alkabelar* 'Avena silvestre'. *Belazi* 'Simiente de la hierba'. *Malkarra* 'Paja de las legumbres'. *Maltza* 'Montón de hierba recién cortados'. *Patxaka* 'Fruto agrio del manzano silvestre'. *Patxaran* 'Endrina', *Patxarra* 'Aguardiente'. *Zeape*, *ziape* 'Mostaza amarilla'. *Zotz* 'Palo fino'. *Zumerike* 'Mimbre'. ABEREEN MUNDUKOAK. *Arrapo*: 'Sapo'. *Kalforro* 1. 'Milano' 2. 'Ratonero'. *Kaloio* 'Cria de la oveja que muere al nacer'. *Legena* 'Tiña'. *Manduli* 'Mosca de macho'. Eusk. mando-uli. Despect. 'gandullón', *Zapaburu* 'Renacuajo'.

TRESNAK, ETXEXO BIZITZA. Sail honetan sartzen dugu etxearen inguruko bizitza: janaria, haurren jokuak, jantziak, etxeko tresnak.

*Altzarre* 'Primer bocado que se toma después de matar el cerdo'. *Altzirria*, *altzirria* 'Estiércol de las ovejas' *Amarreko* '5 sencillos en el juego del mus'. *Amarretako* 'Almuerzo que se hace sobre las 10h de la mañana'. *Antxu* 'Oveja de un año que todavía no tiene cría'. *Antxuzai* 'El que cuidaba los antxus'. *Apa* interj. 1. 'Voz infantil a fin de que se sienten en algún lugar' 2. Variante de *pa* 'beso'. *Apur* 'Pan desmigado'. *Aria* 'Instrumento utilizado para desterronar y allanar la tierra'. *Bizkarra* 'Madero caudal que descansa en la cruz de la tijera'. *Bizkerlarru* 'Piel de la oveja que se pone en la espalda para protegerse de la lluvia'. *Bizkerrezur* 'Espinazo, espina dorsal'. *Bixardeko* 'Sarde de dos púas'. *Borda* 'Edificio donde se guarda el ganado y la hierba'. *Burtzin* 'Hierro de la cocina utilizado para el fogón'. *Eltzemutzu* 'Hucha'. *Eltzetzikin* 'El puchero negro del café'. *Galtxaxabal* 'Especie de polaina de lana'. *Ganbella* 'Pesebre'. *Koñube* 'Depósito situado en el zaguán'. *Kortxille* 'Agujero por donde se tira la hierba desde el pajar'. *Kozka* 'Golpe'. *Kurrusko* 1. 'Parte extrema de la barra de pan'. *Lukerike* 'Longaniza'. *Txerribazka* 'Comida del cerdo'. *Txingerra* 'Tocino'. *Txingili* 'Juego a pata coja con 7 losas'. *Txori kafi* 'Nido de pájaro'. *Pupu* 'Agujero en el piso del desván por donde vierten la paja'. *Zanbaluzka* 'Columpio'. *Zango* 'Pié'. *Zanpar* 'Golpear'. *Zanpa-zanpa* 'Onomat. de un golpe'.

KANPOKO LANAK. Eremu semantiko honetan sartzen ditugu kanpo edo soroko lanei lotzen zaizkien guziak. *Betagarri* 'Operación de apilar leña en la carbonera'. *Etxondo* 'Campo colindante a las casas'. *Ezpondon* 'Parte inferior de un campo'. *Langarriar* 'Tipo de lluvia muy fina propia del País Vasco'. *Lantxurda* 'Escarcha muy fuerte'. *Larre* 1. 'Tierra inculta' 2. 'Brezo'. *Laya* 'Instrumento agrícola que tiene dos púas'. *Legena* 'Sarna'. *Lieko* 'Dícese del terreno de labranza que se deja sin cultivar' Eusk. *Ieku* 'lugar, sitio'. *Mazkila* 'Haz, fajo hecho de helecho o de trigo'. *Meta* 'Pila de hierba o helecho'. *Motxale* 'Esquilador'. *Zarrakamalda* 'Marrazo'. *Ziarraize* 'Viento del oeste, vendaval'.



### 3.3. Interferentzia morfosintaktikoak

Kontuan hartu behar da kategoria gramatikalen mailegutza murrizten dela funtzio sintaktikoen konplikazioaren arabera. Interferentzia moten artean euskaraz honako hauek azpimarra ditzakegu:

- a) *Hitzen hurrenkerari dagozkionak*. Euskararen hitz-ordena galdegaiaren arabera antolatzen da, eta horrek eragiten du Erroibarko gaztelaniazko esaldi askok SOV egitura izatea, aditza bukaeran ipiniz eta galdegaia aditzaren aurretik.
- b) *Funtzioaren aldaketa*. Atal honetako adibide gisa, *porque*-ren erabilera dugu. Gaztelaniaz funtzio xedezkoa du, eta, guk azterturikoetan moduzkoa edo adierazpenezkoa ere. Hona, adibidez: *-Y la novia de éste, porque es enfermera, me dijo*.
- c) *Maiztasunaren aldaketa*. Zenbait kasutan interferentzia nabarmentzen da maiztasunaren aldaketaren bidez, alegia, adibidez, Adjetibo errepikatuen hurrenkerak: *majo-majo*, edota infinitiboaren erabilpen ugaria hemengo gaztelaniaz edota *Que* erlatiboaren erabilpena preposiziorik gabe: *Un pueblo grande (en el) que hacen fiestas muy bonitas*. Hona atalez atal aurkitu ditugunak:

**Adjetibo eta adizlagunen errepikapena.** Euskaraz forma intentsiboak lortzeko errepikapena erabiltzen da aditzondoetan: *zabal-zabalik*, *azken-azkeneko*, adizlagun bikoiztuetan: *bene-benetan*, *bihotz-bihotzetik*, baita eratorpenezko adberbio bikoiztuetan eta zenbatzaile eta garduatzaileetan ere. Hona izenetan eta izenondoetan gaztelaniaz sortzen den islada: *-En la punta punta del monte almorzamos*. *-Hermosa hermosa estaba la iglesia*. Aditzondoetan ere gisa honetakoak ditugu: *-Ven aquí aquí*. *-Estate aquí aquí, ¡Así, así!*

**“X y los dos”.** Euskaraz *Pedro eta biok* esaldiaren kalkoaren bidez: *Pedro, Maria y los tres* edo *Juan y los dos* esaldiak ditugu.

**Gure-nere-ren orde.** Euskaraz *gure* izenorde plurala erabiltzen da familiako norbaitez aritzen garenean. Hau dela eta, kalkoaren bidez, erdaraz, esaterako, *senarra*-ri erreferentzia egiteko ‘nuestro hombre’ diote edota semeari ‘el nuestro’. Gaztelaniaz, ordea, lehenengo pertsonarena erabiltzen da: *mi marido, mi hijo*. Hona ohiko esaldi batzuk: *-Nuestro hombre ya se ha ido*. *-El nuestro por lo menos come de todo*, *-La nuestra (= nuestra dueña) bien se arregla*.

**Izenordeen erabilera.** Erroibarren, beste euskara-gaztelania ukipen eremuetan bezala, badira izenordeen erabileretan desegokitasun anitz. Aditz aginteran eta bestelakoetan oso arruntak dira honako erabilerak: *-¡Quita de ahí (= quitate de ahí) -¡Ata, ata! (= árame)*. *Entonces puse esta falda (= me puse)*. *¡Calla, calla! (= ¡cállate!)* *-¿Aún ries? (= te ríes)* *-Debes guardar (= lo debes guardar)*

Bistakoa denez, eremu honetako gaztelanian izenorde objektuaren kenketa oso handia da; gaztelaniaz, ordea, forma pertsonalak nagusitzen dira. Euskararen eragina dirudi honek, izan ere euskararen konjugazio perifrastikoan askotan kentzen da forma pertsonala (Lafitte 1978: 868) (Echaide 1968: 70). Horrela, gaztelaniazko *se lo he matado*, *se lo he dicho*-ren formen ordez.<sup>2</sup> *-Ya le he matado (un cordero) -Ya le he dicho (se lo)* erabiltzen da. Hirugarren pertsonako klitikoei buruz asko idatzi da, honatx, besteak beste honetaz arduratu direnak: Korkostegi (1992), Urrutia (2003), Fernández-Ordóñez<sup>3</sup>, Echenique (1996). Eremu honetan ere, ohikoa da 3. pertsonako klitikoaren desagertzea, alde batetik euskarazko aditza eranskaria delako, eta bere egitura sujetoa eta osagarri zuzena eta zeharkakoa sartzen baititu, horrek eragiten du 3. pertsonako hainbat klitikoren desagertzea. Horrela, ohikoak dira honako esaldiak: *-¿Has comprado el libro? -Sí, ya he comprado.*

**Aditz etikoaren erabilera.** Lafittek dioenez aditz etikoaren erabilera eremu euskaldunetan aurkitzen da: “Ce datif, assez rare en français, est généralisé en certaines régions basques pour le vouvoiement, partout pour le tutoiement, et il affecte le verbe” (Lafitte 1978: 423. 5).

Elkarrizketa arruntean solaskidea, bigarren pertsona, hartzen dute kontuan eta euskarak honi dagozkion forma batzuk hartzen ditu. Hitzun hauek, egitura hauei jarraiki, balio orokorreko formak pertsonalak bezala erabiltzen dituzte; gehienetan, fenomeno hau te izenordearen bidez islatzen da. Esaterako, euskarak “behiak jaten dik” eta “behiak jaten din” esaldiaren itzulpena hauxe litzateke: *la vaca come* (a tí te lo digo, hombre) eta bigarren kasuan (a tí te lo digo, mujer); bigarren pertsonaren morfema (hiri) te izenordearen bidez islatzen da. Hona eremu honetan hain oparoak diren esaldi batzuk: *-Si te baja el precio del cordero. -Esas ovejas no te comen nada. -Ese te gana mil duros a la hora.*

## Lokuzioak

Ataltxo honetan gaztelaniaz mintzatzean erabiltzen diren lokuzioak izanen ditugu aztergai. Hauetako batzuk euskaraz erabiltzen dira zuzenki, beste batzuk, ordea, euskarazko lokuzioen itzulpen hutsak dira. Hauxe da gertatzen dena hizkera bizi eta herri xeheak erabiltzen duen horretan, espresibitatea markatzeko bidea dela arau eta legeen ardura handirik gabe, hitzaz baliatzea; nahiz gramatikan “huts egin”. Adierazkortasuna bilatzeko ahalegin honetan euskarak berezko dituen errekurtsoak erabiltzen ditu eta euskara hutsean tartekatzen dira: *-Ai ene!, -Hor konpon Mari Anton!, -Iñalakin. -Aqui estamos,*

---

2. Ik. Zatek dioena Unamunoren aipua ekarriz: “Si por ahí habláis de un libro, os contestarán: “Ya lo he leído”. Aquí con un “ya he leído” despachamos.”

3. Fernández-Ordóñezek (1994: 120) hau guztia azterten du artikulu zabal batean, antzeko adibide franko ekarriz, denak euskaldunen ahotan jarriak. Beronen ustez, hau dateke fenomeno hauen arrazoia: “*Es necesario aclarar el porqué y el cómo de la reinterpretación del pronombre le. Me parece evidente que la causa de ese reanálisis fue la mala comprensión del sistema referencial pronominal que regula el romance hablado por vascos*”

*iñalakin* (< egin ahalak egin) (< gazt. 'haciendo todo lo posible'). –*Ara, ara!* 'Expresión de asombro'. –*¡Ara, ara, mira qué de gente hay ahí!*

Beste batzuetan, euskararen eragina sustratoko eragina da. Infinitiboaren erabilera ugaria, esapide honetan islatzen da:

*Hablar con su cabeza* 'Bere buruarekin hitz egin'. Egitura hauek osatzeko euskaraz *burua* izena izenlagun bihurkari bati eransten diogu. –*Yo iba por la calle hablando con mi cabeza.*

**Dejar con la boca llena** 'Ahobetez utzi zuen'. Gazt. "boquiabierto". *Venir a una*. –'Esos vienen a una'. *Bat etorri* -ren kalkoa dateke, alegia, iritzi berekoa izan. *Ahí* (= hor) –*Ahí, ves?* (= mira ¿ves?) –*Ahí tienes!* *como se saca la vida la gente*. Esaldi hauek esaterakoan ez da ezer seinatzen, gaztelanaiz "¡mira!" esango genuke. Gure ustez, *horra*-ren itzulpen zuzena da. Eusk.: *horra, nola ateratzen duen bizitza jendea* izango litzateke. Otra vez. Eusk. *berriz*-ek bi zentzu ditu, alde batetik 'otra vez' eta beste aldetik 'en cambio'. Azpidiferentziatuz adiera bat hartzen da eta bestea, baztertzan: –*El mayor ya gana, pero el pequeño otra vez es un vago.*

## Aditza

Hurrengo lerrootan ikusiko ditugu aditzetan suertatzen diren interferentzia nagusienak.

**Infinitiboaren erabilera.** ¡Y yo creer! –*¿Sabes que Juan ha venido? ¡Sí, y yo creer!* Euskaraz *nik sinetsi hori!* Batzuetan hiru aditz infinitiboan jarraian joan daitezke: –*Ahí andamos, no poder hacer de comer a estos corderos* 'Janerazi'.

**Tener - Estar-en ordeaz** *¿Y éso que tienes? –Esa chaqueta pequeña tienes. –Va, seguro tienes. –Mentira tiene.* Gure ustez, kasu hauetan alokutiboaren aztarnak dira agerian daudenak, alegia, solaskidearen markaren arrastoak. Euskaraz *duk/n* edo *duzu* adizkiak agertzen direnez, gaztelaniaz *tienes*-en bidez itzultzen dira.

**Tener + partizipioa.** Beste batzuetan, adizki perifrastikoak dira *du* laguntzailez osatutakoak euskaraz eta erdaraz, eta *tener* aditzaren bidez itzuliak. –*Tengo para olvidar* 'No lo olvidaré fácilmente' –*Yo tengo oído, –Yo ya tengo pensado a donde voy a ir.* Eraikuntza hauek guztiak euskarazkoen *Nik ikusia nuen, nik pentsatua dut* eta horrelakoen itzulpen argiak dira. Kasu hauetan partizipioa predikatu osagarri hutsa da, kopula aditz baten bidez lotua beste sintagma batekin (Ik. EGLU: 226). Beste batzuetan, partizipioaren ondoan agertzen den adizkia ez da kopula hutsa bakarrik, adib.: *Le tengo dicho* 'Esana diot'; kasu hauetan *nork* eta *nori* kasuak izango ditugu.

Esandakoaz gain, aditz hauek *ba-* aurrizkiez lotuak doaz, eta gaztelaniaz horren kidea den *ya*. Euskaraz, bada, aditz izenak adierazten duen ekin-tza burutzeko ahala erakusten du *ba-* aurrizkiak *ukan* eta *eduki* aditzekin. Inpersonaletan *izan* eta *egon* erabiltzen dira.

“**Estar**” aditza. *Estoy en que...* (-zerbaitetan egon). Kasu hauetan *Estar* aditzaren esanahia hauxe da: ‘estar convencido, opinar’, eta euskarazko ordaina: *egon* aditza eta *-koan* atzizkia. Euskaraz hauxe litzateke: ‘anai bat duelakoan nago’. –*Yo estoy en que no tenía mas que un hermano. –Nosotros estamos en que vinieron el año pasado.* ‘Joan zen urtean etorri zirelakoan nago’. Arakok antzekoak biltzen ditu: –*Estoy que tengo que arreglar* (Arako 1947: 43). Hona beste esaldi bat: *No está de su mano hacer eso* ‘No tiene posibilidad, no depende de él’. Euskarazko *bere eskutik egon* egituraren parekoa.

*Estoy de hambre.* Beste kasu batzuetan, euskaraz izenondo modura erabiltzen diren izen batzuek –*beldur, gose, egarri, lotsa, bero, hotz*– esapide hauek sortzen dituzte. Goian aipaturiko perifrasi hauek ere euskararen itzulpen argiak dira (Ik. Echenique 1985: 165). *Berantetsia nago* esaldiak hauxe esan nahi du: ‘nekatua nago zure zain egoteaz’, hemen *estoy tardado*. Echaidek horrela kalifikatzen du: ‘*Estar con valor existencial*’ (Echaide 1968: 70). –*Estoy de hambre* ‘Gosez egon’–*Estoy de frío* ‘Hotzez egon’.

**Izan** aditzarekin osatutakoak. Esaldi hauek ditugu: *Ser cosa* (eusk. gai izan) –*Yo no soy cosa para hacer eso. ‘Ni ez naiz gauza’* Euskaltzaindiaren arabera, *gai izan* eta *gauza izan* aditzak bezala hartu beharko genituzke.

**Era de venir** (*-t(z)eko izan*) –*Eran de ir ayer mañana* ‘Etortzekoa zen’. Gure ustez, perifrasi hau euskarazkoaren kalkoa da. Kasu honetan aditz nagusia leku genitiboan doa eta *izan/ egon* aditz laguntzaileak eransten zaizkio. *Izan* aditzarekin *-tzeko + Ø* nahiz *-tzeko + a, ak* izan daitezke.

“**Tomar**” aditza. *Tomar mal* (eusk. min hartu) ‘Hacerse daño’ –*Si no haces caso, has de tomar mal.* Honetaz aparte, aditz asko baditugu euskaraz izena + *egin, eman*, edo *hartu* kateaz baliatuz osatzen direnak: *negar egin, lo egin, min hartu, su hartu, su eman, eztul egin, lo egin*. Berauen kalko zuzena da gaurregun entzuten diren goian azaldutako adierazpideak. Sail berekoak dira honako hauek ere: –*Ya ha cogido buen cambio!*

“**Hartu**” aditza. *Que, ¿habéis cogido mucho sol?* Jakina denez, *hartu* aditzak bi esanahi ezberdin ditu erdaraz: *tomar* eta *coger*. Kasu honetan ‘*coger*’-en bidez itzultzen da gaztelania zuzenean *tomar* beharko litzatekeena.

“**Andar**” aditza. –*¿Dónde andas? ‘¿Qué haces?’ –Anda un poco triste –Pedro no andaba por eso* ‘No buscaba eso’. Euskarazko *ibili* aditzaren kalko semantikoa dugu hau (ik. Torres 1993: 521). Euskaraz *ibili* aditzarekin perifrasi multzoak osatzen dira eta hauek *ari izan* eta *jardun* aditzen kideak dira. Hau dela eta, *ibili* aditzak horrelako zentzu pila izan ditzake: *lan egin, bilatu, egon, egin, izan*<sup>4</sup>.

---

4. Iñaki Gabilondok, Donostiako kazetari famatuak, horrela erantzun zuen egindako galdera honi: –*Que tal tienes la voz? Anda bastante bien.* Badirudi zaila dela horrelako hizkera ohiturak kentzea, eta erabat itsasiak gordetzen direla guregan.

**Pegar** ('llamar' eusk. jo). Euskaraz 'ezkilak jo' esaten da. Kalko argia eginez, *pegar* erabiltzen dute *llamar*-en ordeaz. –¿*En tu casa ya pegan?* (= ¿llaman a la puerta?. Euskaraz, Zure etxean jotzen dute? (= deitzen dute?). –*Pegar tres campanadas.*

**Echar**– *Echar tres teléfonos... al veterinario (llamar tres veces).* –*Nos han echado unas invitaciones. Echar* aditzak adiera ezberdinak onartzen ditu hemengo gaztelera. Hauetako batzuk euskarazko *bota*-ren kalkoak dira.

**Hacer.** *Egin* aditzak balio semantiko zabala du euskaraz, antza denez, gaztelera baino handiagoa. Esaldi hauetan, esaterako, *confesar* eta *pagar* adierazteko: –*Yo ya me he hecho 'ya me he confesado'.* –*Eso ya está hecho 'ya está pagado'.*

**Entrar, meter.** Euskaraz aditz honek bi laguntzaile har ditzake: iragangaitza hartzen badu, esaldi iragangaitza izango dugu, alegia, gaztelaniaz 'entrar', eta iragankorra hartuz gero 'meter'. Hemengo hitzunek azpidiferentziazioa egiten dute, horietako forma bat bakarrik erabiliz, eta *meter* erabili beharrean *entrar* erabiliz esaldi iragankorra izanik eta subjeto zuzena izanik. –¿*Has entrado las vacas a la cuadra?* –*Voy a entrar las leñas.*

### 3.4. Joskera

Maila sintaktikoari dagokionez, honako eraikuntza eta esaldi hauek suertatzen dira azpimarragarriak:

**Porque... porque** esaldiaren hasieran dagoenean *bait*-en kopia da. Batzuetan ez da esaldi nagusiaren beharra; eta besteetan esaldi nagusia azkenean joaten da. Dena dela, esaldi hauetan ez dago xedezko kutsurik, moduzkoa baizik. Euskaraz esaldi hauen ordainak *bait* partikularen bidez osatutakoak izango lirateke, adib. hau litzateke euskaraz erabiltzen den honen ordain bat: –*Antes porque andábamos siempre con el ganado...* –*Y la novia de éste, porque es enfermera, me dijo...*

**Esaldi eliptikoak** *Y, pero. ó* konjuntzioak (gehienetan azendunak), diskurtsua eten egiteko erabiltzen dira edo zerbait falta dela adierazteko. Euskara mintzo izan den lekuetan aurki daitezke (cf. Zarate 1976: 50). Hona Erroibarko euskaraz bilduriko batzuk: *Aziendak eta irukitzeko borda bat. Iteko lanak iten zute altzurrez eta ereki.* Funtzio bat baino gehiago betetzen dute forma hauek: *Aquí estuvieron todos jugando, comer y. Al monte fuí, comer y...* *Juan y vinieron a casa.* –*Nosotras tener la culpa y que estamos* (izan eta). –*Pulmonía coger y si estuviste* (hartu ta). Lehenengo eta bigarren esaldiak *jan eta* edo *jan ondoren*-en itzulpenak dira. Esaldiari buelta emanez gero: *Jan eta, hemen egon ziren denok jolasean!*

Esaldien hurrenkerari dagokionez hau suertatzen da azpimarragarri: a) **Galdegaia aditzaren aurretik.** Euskarazko esaldiaren ordena nahiko askea bada ere, SOV egitura egiteko joera nabarmetzen dela esan daiteke. Baiezko esaldietan, elementurik nabarmendu nahi ez denean, hauxe da hurrenkera:

sujetoa, osagarri zirkunstantziala, zehar osagarria, osagarri zuzena, atributoa, aditz nagusia eta aditz laguntzailea (Laffite 1962: cap. VI). Gaztelera, ordea, SVO egitura da ohikoena erreferente berria sartzen denean. Hau dela eta, euskaldunak mintzo diren erromantzearen ezaugarri bat da osagai guztiak aditzaren aurretik ezartzearena. Gaztelaniaz ere errekurtsio hau erabiltzen da (cf. RAE 1989: 395) baina euskaraz bizitasun handiz, esaldiaren egituraren oinarria delarik.

Hau guztia euskararen joskeraren eragina da; jakina denez, galdegaia, alegia, euskaraz nabarmentzen dena, informazio berria, aditzaren aurretik joaten da. Eta honen inguruan antolatzen da esaldia. Hurrengo esaldietan euskarazko esaldiaren hurrenkera islatzen da, aditzaren aurrekoa galdegaia da: *-Bien estoy. -Ese crío todo ha de contar. -De Linzoáin traído -Esa noche una manta no poder conseguir. -Aquel Andrés hermano sería.*

Aditza galdegai denean. Kau honetan bi kasu ezberdin daitezke euskaraz, eta honako hau da bere eraikuntza: 1) aditza sintetikoa bada, infinitiboa jartzen da aditz jokatu baina lehenago. *-Ser de aquí son, pero no suelen venir nada. -Saber, ya sabe, pero no le luce nada. -Estar, ya suele estar, pero no le hace ni caso*

2) Aditza perifrastikoa bada infinitiboa jartzen da *egin* aurretik. Hurrengo kasu hauetan aditza bera da galdegai, eta aditza perifrastikoa da; horiek horrela, "hacer + infinitivo" egituraren bidez ordezkutzen da. Hauek guztiak gehiago edo gutxiago gaztelania-euskara harremana izan den leku guztietan entzuten dira (ik. Altube 1929: 37)<sup>5</sup>: *-Vender te pueden hacer cuando quiera. -Fuimos al monte y la cría caer se hizo.*

**Aditz jokatugabeak.** *Decir* aditzarekin aditz jokatu erabili beharrea, *para* + infinitiboa erabiltzen da, baina esaldiak ez du xedezko baliorik. Honen jatorria euskarazko egituran datza: *esan dio eramateko, gelditzeko, pagatzeko* etab. Honatx esaldiak: *-Les han dicho para llevar a Pamplona. -Les dijo para estar quieto en casa.*

## BIBLIOGRAFIA

- ALTUBE, S.; 1929, *Erderismos*, Trabajos y actas de la Academia de la lengua vasca. Bermeo (Bizkaia).
- APPEL R. & MUSYSKEN P.; 1996, *Bilingüismo y contacto de lenguas*, Ariel Lingüística.
- ARAKO (TESTAUT C.); 1947, *Dialogando*, Ediciones Leyre.

---

5. Arakok erabilitakoak, esaterako, gehiegizkoak dira, izan ere, ez dira horrelako maiztasunez erabiltzen. Horregatik, Gonzalez Ollek dioena erabat zuzena da: "Arako convierte ciertos procedimientos sintácticos (por ejemplo, el uso de *hacer* + infinitivo para señalar el sentido dinámico) debidos a la construcción vascuense en determinados casos, en esquemas de uso constante que en muchas ocasiones no responden, por tanto, a un supuesto modelo con *egin* 'hacer' Pero su intención paródica, con la inevitable exageración de los aspectos típicos, permite conocer los rasgos más característicos del habla de la Cuenca" (Gonzalez Ollé 1970: 68).

Ibarra, O.: Hiru hizkuntzaren arteko ukipena. Frantsesa, gaztelania, euskara, Piriniotako ibar batean

- AZKUE, R.; 1923, *Morfología vasca*, Bilbao
- BORDONBA eta beste; 1977, "La pronunciación del castellano en el corredor de la Barranca", *FLV* 25, 69-72.
- ECHAIDE, A.M.; 1966, "Castellano y vasco en contacto: Tendencias fonéticas vascas en el castellano de los vascohablantes bilingües", *BRAE*, Vol. 46, 513-523.
- ECHENIQUE M.; 1996, "La lengua española hablada en el País Vasco. A propósito de los clíticos de tercera persona", in *Pragmática y gramática del español hablado*. Actas, 65-74.
- FERNANDEZ ORDOÑEZ, I.; 1994, "Isoglosas internas del castellano. El sistema referencial del pronombre átono de tercera persona", *RFE* LXXIV, 71-125.
- FERNANDEZ REI; 1999, "A situación do galego en Galicia e no Occidente de Asturias, de León e de Zamora", in *Estudios de Sociolingüística románica*. 27-83.
- GONZALEZ OLLE, F.; 1964, *El habla de la Bureba*, Madrid.
- ; 1970a, "El romance navarro", *Revista de Filología Española*, nº 53.
- ; 1970b, "Vascuence y Romance en la Historia lingüística de Navarra", *Boletín de la Real Academia Española*, Tomo L, cuaderno CLXXXIX.
- ; 1983, "Evolución y castellanización del romance navarro" *Revista P. de Viana*, 168-169-170, 173-180.
- IBARRA, O.; 1997, "Euskararen eraginaren aztarnak Erroibarko gaurko hizketan", *Oihenart* 15, 61-122.
- ; 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- IRIBARREN J.M.; 1952, *Vocabulario navarro VN*, Pamplona.
- KORKOSTEGI, J. M.; 1992, *Pío Baroja y la gramática. Estudio específico del leísmo, laísmo y loísmo y la duplicación de clíticos*, San Sebastián, Universidad de Desoto.
- LAFFITE, P.; 1979, *Grammaire basque* (Navarro-labourdin littéraire), Elkar-Donostia.
- MENÉNDEZ PIDAL, R.; 1923, "Influjo del elemento vasco en la lengua española", *III Congreso de Estudios Vascos*, Eusko Ikaskuntza, 27-31.
- MITXELENA, K.; 1964; *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donosti, [= *SHLV* I, 1-73].
- MORENO FERNANDEZ, F.; 1998, *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*, Ariel Lingüística, Barcelona.
- THOMASON, S.; 2001, *Language Contact*, Edinburg University Press.
- URRUTIA, H.; 2003, "Los clíticos de tercera persona en el País Vasco", *Revista de Filología y su didáctica* 26, 517-538.
- URRUTIA, H. FERNÁNDEZ T.; 1995, "Duplicación de clíticos en el español: Chile y País Vasco", *Lingüística Española Actual*, 77-106.
- WEINREICH, U.; 1953, *Languages in Contact. Findings and Problems*, Nueva York.
- ZARATE, M.; 1976, *Influencias del vascuence en la lengua castellana*, Ed. La Gran Enciclopedia vasca, 1976.